

FMIren eta MBren Biltzar Nagusia



■ Bukatu berria da Espainiako hiriburuan Nazioarteko Diru Fondearen (FMI) eta Munduko Bankuaren (BM) 49. Biltzar Nagusia. EHUko Sarrikoko Fakultateko Patxi Zabalo eta Mikel Zurbano ira-

kasleek bi erankundeon historia eta funtzionamendua azaltzaz gure; Iñaki Segurola filologoak, berriz, bi erakunde hauen eta azpigaratuen arteko harremana.

Bretton Woods: 50 urte

DUELA 50 urte ekonomi ordenu berriak hastapenak ezarri ziren. Irekitako prozesuan ikuspegi desberdinak eztabaidan jarri ziren eta Estatu Batuetako iritzia nagusitu zen, hain zuzen. Gerrako irabazlearen artean suntsitu gabeko ekonomia zuen bakarra izanik bere indar hegemonikoa ezartzeko erraztasun osoa izan zuen. Honen islada, Bretton Woodsen (Estatu Batuetako hiria) 1944an FMI (Nazioarteko Moneta-Fondoa) eta MB (Munduko Bankua) sortu ziren eta hiru urte beranduago ordenu honen hirugarren zutabea, GATT delakoa, nazioarteko merkataritza arautzeko.

FMIaren helburu nazioarteko pagamendu-sistemaren egonkortasuna bermatzea zen. Horretarako gantio-tasa finkoa ezarri eta devaluaketak ekiditeko maileguz ematen zuen. MBaren jatorria asmo bikoitza zegoen. Lehena, Europako eta Japoniako ekonomien berreraikuntza. Praktikan gerrak suntsitutako ekonomiak berpizteko lana Estatu Batuek bere gain hartu zuten, ospetsua egin zen Marshall Plana medio. Bigarren helburua, Hirugarren Munduko ekonomien garapena bultzatzea zen, horretarako, garapen egitasmo zehatzak (bideak, urtegiak, nekazal azpiegiturak, e.a.) finantzatu.

ERAKUNDE hauen ibilbidea ulertzeko ezinbestekoa da bertako botere-egituraketa labor azaltzea. Hala FMIn, nola MBan erabakjak hartzeko sistema herrialde partaideek ipinitako dirutzaren arabera da. Zenbat eta diru gehiago orduan eta botu kopuru handiagoa. Horrela, Estatu Batuen eta Europako Mendebaldeko herrialdeen botuak nahikoak dira erabaki oro aurrera ateratzeko. Ez da harrizkoa, beraz, egundaino MBko lehendakari guztiak estatubatuarra izatea eta FMiko zuzenda-

riak, berriz, europarrak. Aipatu botere-egituraketa, FMIak maileguz ematean herrialde txiroei ekonomi politikan ezarritako baldintzetan isladatzen da. Baldintzak, herrialde garatuak ekonomi doktrina hegemonikoetatik atereak izan ohi dira.

HALABER, MBak finantzatu dituen garapen-egitasmo erraldioen etekinak Hirugarren Munduko herrialde hartzaileek bainoago enpresa transnasionalek eskuratu dituzte. Izan ere, azpiegiturak eraikitzeke lanetan jatorriz mendebaldekoak diren enpresak ari izan bait dira, batipat. Are gehiago, MBak berak onartzen du gauzatutako egitasmoen herenak baino gehiagok porrota ezagutu dutela ekonomi ikuspegi soiletik behatuz. Gainera, egitasmo gehienak ekologi eragin handikoak dira, kultura indigenoen suntsiketa eta populazio mugikortasuna areagotzen dute.

70. hamarkadaren hasieran gantio-tasa finkoen hastapena apurtu egin zen, nazioarteko moneta-sistemaren krisiaren testuinguruan. Garai honetan, Hirugarren Munduko herrialdeen zorpetzeko prozesua ematen hasten da, MBaren maileguen garrantzia bigarren mailara alboratu eta mailegu pribatuek nagusitasuna hartuz.

HURRENGO hamarkadan, 80. an alegia, Hirugarren Munduko zorraren arazoa lehortzearekin bat FMIak eta MBak protagonismo eraberritua ezagutu zuten, doikuntzarako egitur plan zorrotzak ezarri eta neoliberalismoaren hastapenak mundu zabalera barreiatuz. Doikuntza plan hauen azken helburua herrialde txiroek aberatsen banku pribatuekiko zorrak kitatzea baino ez zen. Honela, FMIa eta MBaren mekanismoak erabiliz Iparraldeko herrialdeek (G-7 taldekoek esaterako) bere eremu banku pribatu eta enpresa transnasionalen interesen aldeko jarrera garbia


hartu zuten. Hegoaldetik Iparralderako diru-fluxuen aurpegi izkutua herrialde txiroen populazio zati handi baten pobrezia eta, maiz, mixeria larriena dugu, haurrak, emakumeak eta agureak kaltetuenak izanik. Egun, egoera hau Europako Ekialdeko herrialde askotara hedatu da, giza-kostu eta desegonkortasun politiko izugarriak eraginez.

ZIENTZIAZ maskaratutako dogma liberalaren izenean, Hegoaldeko hiritarren gaurko sakrifizio ziurra indarrean ipintzen da zalantzakor eta eztabaidagarria den geroako ekonomi hazkundeko hipotetiko baten itxaroan. Haratago, Hegoaldeko kapitalak zorren kitapena zuzentzean hazkuntza hau balaztatzen da herrialde hauen ekonomi geroa hipotekatuz.

FMIa MBaren arteko lankidetzak Hirugarren Mundua eta Europako Ekialdea Iparraldeko boterean pean daudela isladatzen du. Bretton Woods-eko instituzioak egungo ekonomi sistemaren justizia ezaren adierazpen gordinenak dira. Epe laburrera, instituzio hauen sorrerako baldintzek bere hortan dirauten heinean, FMIa eta MBa urteetan jasan behar izango ditugu... zoritxarrez.

PATXI ZABALO

MIKEL ZURBANO

EHU-KO EKONOMI ETA ENPRESA
ZIENTZIETAKO FAKULTATEKO
IRAKASLEAK

Munduko Kutxa eta karitatearen hutsa

MUNDUKO Bankuko lehen-dakari Preston jauna izenaren jabe da: gizon prestua eta ona. Badu federik asko Garapenean («giza-historiako garaipen haundienetakoa» dela esan du), eta hargatik eman ditu Munduko Kutxa horrek 300 bat mila miloi dolar kreditu edo sinesmenetan, 6.000 inguru proiektu garatzeko 100 bat nazio ez-garatu edo, hobeki, garapen-bidean direnatan, ez baita eguzkipeko jendaki ororentzat bide bat baizik, bide guztiak ongizate garatuaren portura biltzen direla jakin zenez.

Ez du ordea dena xeru-xeru agertu nahi izan, eta bizi aranguratu dago gure gizona nazio azpigaratu edo garakizunetako miseriarekin: milaka asko hiltzen egunero komeni baino lehen (haur gaixok barne), bizi dena ere patrikatik alargun, garbitasun eta eskola falta latza, eta, errematea emateko, hondamendi ekologikoa. Eta hori guztia Garapena ez delako oraindik behar bezala birbildu, Ongizateak ez dituelako hankabiko xomorro guztiak azpian harapatu. Erremedioak baditu saltzeko: burlazko hitzez Hirugarren Mundu deitzen den horretan hazkunda eta inbertsioa indartu, haien bizi-maila hobetu ('personetan inbertitu') guztion mesederako, zeren pobre garakizunei laguntzeko, izanik hura 'munduko merkatu dinamikoena', mundu garatuarentzat lanpostuak eta aberastasuna baitakartza, hain segur. Laburbilduz: «il da karidadea, bizi da mengantza» kantatzen

zuten euskaldun haien sasoi ondotoxoz pasea dela eta inork gutxi duela munduaren gaitzak ezeztatzeke egun hauetan Madril bildurik egon diren exekutibo mundialek ainako borondaterik; bestela esan, karitatea eta mendekua elkarrekin bizitzen jarri direla gure Lehen Mundu honetan.

ETA zer esan behar diozu Preston jaunari? Sar ditzala bere Garapena, Bankua, Kreditua eta Sinesmena kabitzen zaizkion lekuren batetik? Baina arrazoiaren bideak ere saia daitezke, eta esan, adibidez, garatze kontu horri gogozkiola, zenbait landare-erentzat garatzea on bada ere, beste askorentzat garatzeak usteltzea eta alferrik galtzea esan nahi duela, hau da, garapena hondamendiaren beste izen bat baizik ez dela; edo ongi bizitzea esaten zizaienak ez duela deus ikustekorik ongizate edo bizi-maila esaten zaion ekonomisten asma-zio engainagarri horrekin; edo ongizateko munduaren ondoeza eta ongizaterik gabeko munduaren bizi-ezina miseria berbera direla, Garapenearen arbolako fruitu harjoak biak ere... Eta zer? Laster esango dizu ez joateko hari desarrazoi poetiko-sentimentalekin eta arrazoi materialak behar dituela hark eta ez idealak, eta lasai geldituko da bere fedean, buruan pasa ere gabe nekez asma daitekeela Dirua eta Kreditua baino gauza idealagorik.

Ez dago hemen asmatzen erreza, ez dagoenez erreza... salbu-eta intelektuak progrefi gaitz-estaliatzen eta azpigaratuen

garapenari laguntzeko (gogaideak nonahi Preston jaunak!) BPGko % 0'7-aren kontu txoraldia hori sinetsi duten (borondate oneko?) gajo-gizaioentzat.

ARTETIK esan dezadan progrefi izenez bataiatzen ditudala hemen ustelkeria, telezaborkia, faxismoa, terrorismoaren atentatuak (ez atentadurik gabeko Terrorismoa), Polizia eta Justiziaren hankasartze tristeak edo hauteskunde ez-garbiak salatzen dituztenak; gobernadore astaprotoren baten dimisioa eta diktadurak preso txintxo ('kontzientziako') askatasuna eskatzen dituztenak; zientziaren fizikiozko eldarnioetarik 'herri xedearen' usteak, erlijio zaharkituak edo aitasainduen erakutsiak gaitzesten dituztenak; fanatikoa haundien eta fundamentalista teknodemokratikoaren kontra txintik atera gabe, setoso ttikiei (integrista islamikoek, abertzale pulamentuzkoei...) parre eginaz lakezten direnak..., hau da, sistemaren hutsak gaitzetsiz sistemaren bete onesten dutenak, normaltasunaren salbuespenak mardarikatuz normaltasuna bera bedekintzen dutenak, edo, lehengo harira etorri, axaleko 0'7 erreus bategatik espantuka ariz, barrenko 99'3 gainerako horri (zinezko gaizkinari) arraxtadarik ttikiena ere egingo ez dioten bertangozaleak.

ERANTZUNGO zait menturaz jardutea erreza dela eta besoak antxumaturik gelditzea errezagorik, inolako irtenbiderik proposatu gabe. Bai, baliteke, baina bada hori

baino errezagorik: nik ere badakit tarteka nere bihotz-puxka ezta bere barrunbetik haiztzen, eta baita zer den ere, poltxikoan zakarrak izan ezker, gose denari bokata lehor bat erosteko lain ematea edo jonki bati hurrengo zastada inguratzeko behar duena osatzen laguntzea, ordu batzutatoko bakea eman dezan. Oso ona da gainera osasunarentzat, gorputza arintzen baitu eta arima aingerutzen. Eta bai, zerbaiterako balio du behar bada Munduko Kutxa ez den bankuren bateko (denak bat eta bera ez balira bezala!) elkartasunezko kontu korronteren batean diru pixarren batzuk uzteak eta baita 0'7-aren kontutxo horrek ere, ezin esango dugu gaizki dagoenik: agian, optimistegiak izanez, % 0'7 haur gutxiago hilko da goxez edo % 0'7 malko gutxiago ixuriko du pobreak negarrezko ibar honetan. Baina gauza bat da hori, eta bestea, oso bestea gero, da uste izatea horrekin aberaskillo karitatetsuen eta Mixi-kordiko mojenaz bestelako politika bat egiten ari garela: hori politika bada edo politika hori bada, da politika txepela eta txarra, edo, hitz folklorikoz esanik, Preston jaunaren eta Garapenearen eskuin muturrerako politika kolaborazionista eta atzerakoa.

Horrelakoxeak dira karitatearen on-gaitzak.

IÑAKI SEGUROLA

FILOLOGOA